

Haurtzaro Ikastolako Aldizkaria

TXINPART

1996 Urtarrila-Apirila - 4. Zenbakia



**SANTO
TOMAS
FERIATIK...**



**SANTA
AGEDA...**



IHAUTERI...



**eta ORAIN
UDABERRI**





Aldizkariko sekrioren batean parte hartu nahi baduzu, hona hemen jarraitu beharreko prozedura:

* Zure lanak izenpetua izan behar du; Izen-abizenak eta NAN zenbakia adierazi behar dituzu.

* Ikastolako helbidera bidali behar dira lanak, eta sobrean aldizkarirako dela eta zein zekziorako den adieraziko da. Edo, ikastolako buzoian utziko da.

Hautzaro Ikastola

TXINPART aldizkaria, sekzioa.

Elorrondo Z/G, 20180 Oiartzun.

* Lanak jasotzeko epea, hiruhilabete bakoitzaren bukaera baino hilabete bat lehenago izango da; aurtengo ikasturtean, Otsaila bukaera eta Maiatza bukaera. Hala ere, ez azken eguna arte zai egon.

HAURTZARO INFORMATZEN

GAZTETXOEKIN IBILALDIAK IKASTOLAK

Haurtzari Ikastolako ekintza estraeskola-
rren egitarauan iragarri bezala, "Mendi tal-
dea" osatu da eta "Girizia" taldearen
laguntza tekniko ukaezinaren bidez, hilabe-
teroko irteera bana antolatu dugu, Gipuz-
koako Aldundia eta Euskal Mendizale
Federakundean gidaritzapean.

Irteeren egutegia honako hau da:


95/11/26	Artikutza senderismoa
95/12/17	Adarra (Urnieta)
96/01/14	Uzturre mendia (izaskun-Uztu- rre-Amasa)
96/02/11	Auza Gaztelu Mendia (Larraitz- Auza Gaztelu- Zaldi- bia)
96/03/24	Martxa neurtua
96/04/28	Erlo mendia (Azpeitia)
96/05/05	Larrun mendia (Bera)
96/06/08	Artikutzan ibilaldia (Gaua aterpean pasako delarik)

Gaur arte egitarau honetako lehenengo
lau irteerak burutu dira, jende kopuru alde-
tik oso arrakastatsuak izan direnak: nahiz
eta eguraldia lagun ez izan, batzaz beste 60
mendizalek hartu du parte.

Bestalde, berez ikasleei eskainitako
ekintza izan arren, guraso ugari biltzen
denez, aukera paregabea dugu hau Ikasto-
lako gurasoen artean harremanetan jarri
eta gaztaroko poz eta bizitasunaz berriro
gozatzeko. Era beran, gazteen garapenaren
jarraipena egiteko eta bide batez gure ingu-
ruko natura eta txokoak ezagutzeko parada
ezin hobea dugu.

Lerro hauen bitartez Ikastolako partaide
oro -ikasle zein guraso- ekintza hauetan
parte hartera animatu nahi zaituztegu.

Bide batez, ohartarazi nahi zaituztegu
ekainaren 8rako progrmatuta dagoen irtee-
rako, aurreko irteeretan parte hartu dute-
nek lehentasuna izango dutela.



OHARRA: 1996/03/24 rako iragarritako
"Martxa neurtua" ikasleei bakarrik dago
eskaini, baina boluntarioen laguntza esker-
tuko dugu.

HAURTZAROKO MENDI TALDEA



TARTEKA MARTEKA

Aurtengo ikasturtean (95-96), O.H.O.ko
7. eta 8. mailetako programazioa diseinat-
zerakoan, proiektu ezberdinak finkatu geni-
tuen eta horien artean IRRATIaren proiektu-
tua.

Hau guztia aurrera ateratzeko Oartzun-
go KONTAKATILU irratiaz baliatu gara. Irra-
ti hau herritar guztiei eta guztientzat irekita
dago. Guk ikasleen komunikazio gogoia eta
gaitasunak bat eginik, irratsaioak prestatu
ditugu.

Horretarako irradi taldeko Ainhoa Palomo-
ren laguntza izan dugu. Bera arduratu da gra-
baketaz. Patxadaz eta pazientziatz beteta,
hor aritu zaigu lan tekniko egiteaz gain,
irratiko funtzionamendua erakusten. Hemen-
dik, izan duen jarrerarengatik eta emandako
laguntzarengatik, gure eskerrik beroenak.



HAURTZARO INFORMATZEN

PROGRAMA BATEN OSAKETA

Hamabost egunetik behin, gela bakoitzak ordubeteko saioa prestatu ondoren, astelehenetan ilunabarreko 8etatik 9etara eskaini ditugu, Tarteka Marteka izenpean.

Dagoeneko, gela bakoitzak saio bat bete du. Hor joan dira albistegi, ipuin, olerki, erreportaia, bertso, abesti, txiste, elkarriketa... eta abar luzea. Bakoitzak bere intentzio onenez prestatuturiko saioak izan dira.

OSO ESPERIENTZIA BAIKORRA BENETAN!



Saio bat grabatu aurretik, dakizuen bezala, saioa zeri buruzkoa izango den erabaki behar da. Gauza sinplea dirudi, baina benetan garrantzitsua da. Aukera bat baino gehiago dago saio motari buruzko aukeraketan: Musika, kirola edo denetik dagoen saioa bat; hau da, "pupurri" bat.

Zeri buruzkoa izango den erabakitzean, gidoi bat egiten da sartuko denaz eta bakoitzaren iraupenaz. Komenigarria izan ohi da, gaizkiulertzeak aurremateko, makinaz edota ordenadorez pasatzea guztia. Idatzitakoa behin eta berriz irakurtzen du aurkezleak, eta ondoren, horretarako prest dagoen batek lana zuzentzen du.

Orain, mikrofonoaren aurrean hitz jariora botatzea falta! Eta ez da lan erraza. Ez horixe! Bakoitzari bere ahotsa benetan itsusia iruditzen zaio. Grabaketa, gela itxi batean egiten da. Antena handi batez uhinak hartu eta irratia piztu edo martxan jartzen duenarentzat, hainbesterainoko lanaren fruitua entzungarri izango da.


HAURTZARO INFORMATZEN

Batzar Nagusi Berezia

1996-I-25

UDAL ESKOLA PUBLIKOA

- Udal Eskola Publikoaren inguruan, orain dela 2 bat urte hasiera eman zitzaion prozesuaren lehen fasearen bukaeran gaudela esan dezakegu.
- Euskal Eskola Publikoaren legeak, Udal Eskolaren zirrikitua edo aukera irekia uzten zuela ikusiz, apostu honi ekitea erabaki zuen Oiartzungo Udalak eta bertako Hezkuntz Komunitate osoak (Hiru Haur Eskolek, Elizalde Ikastetxeak eta Haurtzaro Ikastolak).
- Batez ere, Euskal Eskola Publikoaren kontzepzio berri baten aukera zabaltzeko bide egokia izan zitekeelako: Herritik hurbileko proiektua, herriaren partehartze zuzena, herrian txertatutakoa, autogestionatua, eskaintza zabala, osoa eta bakarra (0-18 urtera artekoa), publikoa, dohainik, ...
- Horretarako, Siadecori eskatu zitzaion Udal Eskola Publiko horren aurreldiseinu egin zezan (Datu bilketa, herriko agente sozial guztien borondateen sondeoa, Eskola horren ezaugarrien bilduma, eskolaren bideragarritasuna ...). Horixe dugu gaur esku artean daukagun informea edo txostena, oso laburtuta bada ere.
- Ondoren, Proiektu hau martxan jartzeko, txosteneko 8. orrialdean agertzen den bezala, aurreldiseinu honekin Hezkuntza Sailari eskaera formala egitea litzateke bidea, baina, horretarako, agente sozial guztien onarpenarekin.
- Horregatik eta horretarako gaude gaur hemen, Ikastolak ere, beste ikastetxeek bezala, aurreldiseinu honi aurrera ala atzera esan diezaion, Udalak lehenbailehen Hezkuntza



Sailan aurkez dezan.

- Bestalde, esan behar da, hau ez dela derrigorrezko bide bakarra, bide honek porrot egingo balu, guk geure Ikastolaren proiektuarekin jarraituko dugula, eta Udal Eskola Publikoaren proiektuak aurrera eginda ere, prozesuak irauteen duen bitartean, Ikastolak aurrera egin behar duela. Gu, behintzat, horretan ere ari gara.

SANTO TOMAS




Abenduaren 21a: Santo Tomas, errenta ordainketarako eguna baserritarrentzat. San Martin egunean txerria hil dugunez txistorra jan beharrean gaude.

Aurten itxura berria eman diogu Haurtzaron Santo Tomas egunari, azoka txiki bat antolatuz eta txistorra postuak ere bertan jarritz. Ez ziren faltza izan taloak, barazki ederrak, abereak, ez eta txerriaren zozketa ere.

Elkarren artean errentak ordaindutat jotzen ditugu ospakizun honekin.

Besterik gabe, datorren abendua arte.




HAURTZARO INFORMATZEN

OLENTZERO

Ohiturari jarraituz, abenduaren hogeita lauan, ikastolako ikasleak auzoz-auzo joan ziren gabonetako abestiez jendea alaitzera. Oihartzungo bailara osoan gure kantu alaiak entzun ahal izan ziren, nahiz eguraldi kaxkarra izan. Hala ere, oihartzuarrek ongi bete zituzten gure maindiri eta poltsak. Honi esker diru kopuru dexentea bildu genuen, eta ... zein erabilpen eman diogu jasotako diru honi???

Ba, hain urruti dugun Joxe Mari Garmendia apaizari bidali diogu. Elizbarrutiko misio ordezkaritza arduratu da ahal den azkarren eta normalki erabiltzen dituzten bideetatik zuzenean eta pertsonalki emateaz. Ziur gaude Joxe Marik hemendik bidalitako diruari erabilpen zuzen eta egokia emango diola. Hemendik bihotz-bihotzez agur bero bat bidaltzen diogu. Inor animatuko balitz hari idaztera hemen duzue bere helbidea:

Joxe Mari Garmendia
Convento Parroquial- Casilla 104
El Calderón - Santa Rosa
El Oro ECUADOR



IKAS-PILOTA



Ikasturte hasieran planifikatu bezala, otsailaren 23an, Udaletxeko Pleno-aretoan EUSKAL PILOTAREN ERAKUSKETA IBILTARIA ikusteko aukera izan genuen.

Erakusketa hau Haurtzaro Ikastolak antolatu zuen, Udalaren laguntzarekin eta Ikastolen Elkarteko IKASPILOTA zerbitzuari esker.

Erakusketa honen barruan, DIAPORAMA emanaldiak izan genituen, Ikastolako ikasleentzat (3. mailatik, BBBraino).

Horretaz gain, otsailaren 21etik 24ra, gurasook ere izan zuten aukera EUSKAL PILOTAREN ERAKUSKETA honetaz gozatze-ko.



HAURTZARO INFORMATZEN


ESKORIATZA-RA

Otsailak 26an, OHOk 7. mailako ikasleekin ohizko ibiladia egin dugu gelan landutako gaiarekin erlazionatua. Bertan, hain zuzen ere, ikasleek, historiaurreko gizakiek egiten zituzten marRazkiak, suaren aurki-kuntza, orduko silexko tresnak egitea e. a. errepikatu dituzte.

"Hau dena non?"- galdetuko duzue. Ba, Eskoriatzako museoak gauzen ezagutzera iristeko bide bakarra begiratzea izan ohi den museoaren kontzeptu klasikoa aldatzen du: proiektu guztien aurrean, historia kontutan hartu beharra, baina baita paisaia, ingurugiroa,... funtsean natura bera ere badagoela azaltzen digu.

Eskoriatza herriak museoaz gain monumento megalitiko, baserri, txoko, tresna, ibai,... eskaintzen dizkigu eta bere inguruan udalerria osatzen duten elizateak: Boibar, Mendiola, Apozaga eta bere hilerria,... bide-tik gora iritsiz Leintz-Gatzaga Erdi Aroan eraikitako herria ikusi ahal izan dugu.

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu hain urruti ez dagoen Deba ibaiaren iturburua bisitatzeko. Edozein aitzaki erabil daiteke gura Euskal Herriko txoko miresgarriak ezagutzeko. Gonbidatuta gelditzen zarete. ANIMA ZAITEZTE!!



OBRAK



95 - 96 ikasturteko plangintzarekin jarraituz, ikastolako berrikuntzek aurrera jarraitzen dute. Gehienak lehenengo hiru hilabeteen gauzatu bagenituen ere, bigarren- gorako ere bagenituen obra pare bat:

1.- Jolaslekura jaisteko ranpa. Eskilarak bazter guztietatik ditugu ikastola inguruan, baina, orain, ranpa ikusgarri bat ere badugu gurasoek beren txikienak errazago eraman eta ekartzeko.

2.- 4 urteko-entzat komun berriak. Lehen-goak zaharkituak eta handiegiak zirenez, berriak eta txikagoak ipini ditugu. Ondotan, jantokira joaten diren ikasleek eskuak eta hortzak garbi ditzaten gelatxo bat, garbileku bat ere prestatu dugu.





HAURTZARO INFORMATZEN

EKINTZA OSAGARRIAK. ZERTAN GABILTZAN.

Txinpart aldzkariak eskaintzen digun aukera aprobetxatuz, aurtengo ikasturtean orain arte komisio honek egindakoaren berri ematera gatozkizue. Bi esparrutan lan egin dugu nagusiki:

- Kirol ekintza mailan. Gurasoeekin bile-
ra egin da kirola egitearen helbu-
ruak zein izan beharko lukeen azal-
duz, kiroltasuna, konpetitibitate txi-
kiagoa eta abar baloratuz. Gurasoen
arteant dabilzan kezka ere biltzen
ahalegindu gara. Honetaz gain, gura-
soen partehartzea areagotzen saiatu
gara, garraio lanetarako taldeak osa-
tuz, arduradunak
izendatuz...Ikasturte amaieran lan
guztia ebaluatuko dugu elkarren arte-
an.
- Kultur ekintza alorrean, bideratu
diren ekintza berrietan (txistua, plas-
tika, antzerkia, dantza garaikidea...) partehartze handia izan da. Zazpi
talde daude gaur egun lanean, lauro-
gei ikasle bilduz. Esan beharra dago
ez genuela uste hainbeste eskaerarik
egongo zenik eta gutxi batzuk gehia-
go bildu diren arren, ezin izan dela
beste talde osorik osatu eta ekintze-
tatik kanpo gelditu dira bestela talde-
en funtzionamendu egokia ezin zela
bermatu edo aseguratu. Ez duda-
rik izan, datorren urterako antolaketa
kontuan asko ikasi dugu eta
DENONTZAT erantzuna bilatuko dugu.

Bestalde, eta lehendik datozen ekintze-
tan (mendiko taldea, dantza taldea, bertso-
laritza, bolillogintza...), lana zorrotz egiten
ari dira, bakoitzak sendo eusten diolarik
hartu duen eginkizunari.

Orokorki, Ekintza Osagarrien sail honek
hedapen handia hartu du gaur egun eta
eskaintzen den lana guztion artean tokat-
zen zaion mailan jartzen ari garela esan
genezake: eskaintza zabala da eta lanean
dihardutenek gure errekonozimendua eta
esker ona merezi dutela pentsatzen du
komisio honek. Bestalde, eta hau irakurle
guztion gana zuzendua, zenbait iradokizun
edo sujerentzia, ohar, balorazio... gurega-
naino zuzendu nahiko bazenute, jakin guz-
tietara irekiak gaudela eta oso gustora
jasoko genituzkeela.

Azkenik, hitz gutxitan esateko, aurrera
eta eskerrak denoi. Eutsi goiari, bai horixe!

Ekintza Osagarrien Komisia.

IZOTZ IRRISTAKETA

Gorputz hezkuntza arloaren barruan
antolatu den ekintza dugu honako hau.

Donostiako Txuri Urdin Jauregian eta
hastapen moduan, 8. Maila eta BBBko
lehen mailako ikasleak bertara inguratu
ziren kirol hau ezagutzen hasteko asmoz.
Txuri Urdineko arduradunek jarritako begi-
rale baten eskutik oinarritzko ariketak egin
genituen... saltoak, hanka bakarrean, atze-
raka irristatu, eta lehenengo momen-
tuan sortzen diren beldurrak eta golpeak
gaingitu ondoren jolasari ekin, beste hain-
bat ikasleekin batera.

Ekintza arrakastatsua eta gustokoa izan
dute ikasleek eta patinak kendu bezain
laister planak egin zituzten lehenbailehen
bertara itzultzeko.

GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

DBHren ZERGATIA

DBH ren esanahia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza da, 14/16 urte bitarte, lau urtez irauten duen Etapa da.

Baina zergatik elkartu OHoko 7 / 8 mailak BBBko 1 / 2 mailekin eta ETAPA berri bat sortu?

Alde batetik, bi urtez atzeratzen da ikasketekin jarraitu ala ez, edo zein ikasketekin jarraitu aukera erabakitzeko adina.

Beste arrazoirik ere bada: **Hezkuntz Sistemaren ziklokako** antolakuntza, ikaslearen eboluziozko garaia ezaugarriak kontutan hartuz egindako ziklokako antolakuntza.


Nerabezaroak, adoleszentziak, etapa ezberdin eta bereizgarria markatzen du pertsonaren bizitzan. Adin honetako ikasleak ez dira pertsona helduak eta ez dira jadanik haurrak. Adin hau ulertzeko garai horretako kaleko bizimoduak duen eragina, dituzten kezkak, garai horretan modan jartzen diren kulturak e. a. kontutan hartu behar ditugu. Bai eta eskolak ere, ikaslea eskolarekin identifikatu dadin. Honengatik ikasleak etapa honen eboluziozko ezaugarrien baitan taldekatzeko beharra.

Ezaugarri hauei beraien beharrak lotzen badizkiegu (nork bere burua ezagutu, bakoitzak bere lan intelektual antolatu eta plangintzatu, e. a.), honek guztiak, pentsamendu trebetasunak garatzeko eta trebatzeko garai ezinobea egiten du Etapa hau.

PENTSAMENDU TREBEZIAK EDO ABILEZIAK

DBHren helburuetako bat dugu hauex: pentsamendu trebeziak garatzea. Hauen artean honakoak bereiziko genituzke:

- **Arrazonamendu trebeziak:** arrazoin-keta inductiboa, deductiboa, informala, argudio-kontraargudio gaitasunak.



- **Arazaok soluzionatzeko trebeziak:** informazioaren artean garrantzizkoena aukeratzea, soluzioaren helburua ezagutzea, plangintzatzea, erabakiak hartu, estrategiak burutu, ondorioen azterketa.
- **Aprendizaiarako estrategiak:** Ikas teknikak, ikas ohiturak, errepasoa, elaborazioa, antolakuntza.
- **Trebezi metakognitiboak:** ezagupena desaroilatzten duten trebeziak: plangintza, ebaluaketa, antolaketa.

Honek guztiak PENTSAMENDU KRITIKOA ren garapena eragiten du, bakoitzaren pentsamendu eta arrazonaketa prozesuei buruzko erreflexionatzeko gaitasuna lantzen du. Gazteak ikasi behar du, erreflexioaren bidez, NOLA pentsatzen duen, eta era beran, bere habilitade intelektualak NOLA hobeagotu litzaken, errendimendu handiago ateratzearren.

"IKASTEN IKASI ETA PENTSATZEN IKASI" gerta dadin motibagarritasuna lortzea da etapa honen helburuetako bat.

"Padres y maestros nº 212"tik hartua.





DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA GURE IKASTOLAN

Hezkuntza erreforma aurrera doa eta datorren ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Mailara helduko da. Aurten 6. eta 7. Mailako ikasleak harrapatzen ditu Plan berri honek. Izan ere, bi mailak batera ezarriko dira martxan, DBHko 1. Ziklo osoa, alegia.

EZAUGARRI NAGUSIAK:

- Lehengo plan zaharrean, 14 urtetan bukatzen zen O.H.O. . Ondoren bakoitzaren aukeran zegoen ikasketekin jarraitzea ala ez (BBB, LH, REM ...) Oraingo legeak, ordea, 16 urte arte luzatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Ondoren bakoitzaren aukera izango da beste ikasketekin jarraitzea ala ez (Batxilergoa, modulo profesionalak ...)
- D.B.H. bi ziklotan banatzen da, eta ziklo bakoitza bi mailaz osatzen da. Beraz, 12-16 urtetako etapa 4 urtetan burutuko da eta 4 maila izango ditu.
1.-Zikloa: 1. -2. maila, orain arte OHOk 7. eta 8. mailak.
2.-Zikloa: 3. -4. maila, ezagutu ditugun BBBko 1. eta 2. mailak edo Lanbide Heziketako aurreneko bi ikasturteak edo Irakaskuntza Ertainen Erreformako bi urteak.
- Haurtzaro Ikastolari dagokionez, datorren ikasturterako 3 lineak onartuak eta konzentratuak izango dira DBHko bi mailetan. Beraz, ez dugu ikasle

pilaketa handirik izango, orain arteko kopurua mantenduko da gelako.

- Honek asko lagunduko digu erreformaren ildoari jarraitzeko orduan, ikasleen banakako jarraipenari dagokionez eta aniztasunaren trataerari begira. Helburuetako bat hori bailitzateke, ikasle bakoitzaren gaitasun, interes eta gainontzeko ezberdintasunak kontutan hartzea, eta hauek errespetatuz garatzea proiektu kurrikularra.
- Beste helburuetako bat, zehar lerroak lantzea litzateke (Giza eskubideak, osasuna, sexu heziketa, kontsumoa ...).
- Ordutegia: OHOn 25 ordu ziren aste-ko, guk 28 eman arren.
DBHn 30 ordu izango dituzte ikasle-ek astean.
- Arloak:

EUSKARA-LITERATURA
GAZTELERA-LITERATURA
MATEMATIKA
INGELES
GIZ. ZIEN. - GEOGR. HIST.
NATUR ZIENTZIAK

TEKNOLOGIA
PLASTIKA-IKUS HEZKUNTZA
GORPUTZ HEZKUNTZA

MUSIKA
TUTORETZA
INFORMATIKA
ERLIJIOA edo ETIKA-GIZ. FORMAK.

AUKERAZKOAK:

FRANTSESA
HIZKUNTZA TAILERRA (Ipuin, antzerki, bertsolaritza, irratsaio, aldizkari...)
INGURUGIRO TAILERRA

Beraz, datorren ikasturterako, hau da, 1996/ 97an, DBHko 1. eta 2. mailan aukerazko gaiak hauek izango dira:

- ERLIJIOA / ETIKA.
- FRANTSESA / HIZKUNTZA TAILERRA / INGURUGIRO TAILERRA

Bigarren hiruhilabete honetan gurasoen artean pasatutako aukerazko gaien inkestaren ondorioz egingo da datorren ikasturteko plangintza.

OIARTZUNGO IHATERIAK

(Oiartzungo ihauteriak berreskuratze lanetan diharduen taldeko kide den Xabierri egindako elkarrizketa)

1.- Noiz eta nola sortu ziren Oiartzungo ihauteriak? Ez dakigu hori, aspaldiko gauza da.

2.- Noiz desagertu ziren? 1936 an, gerrarekin batera; debekatu egin zituzten.

3.- Noiz hasi zineten berreskuratze lanean? Duela bost urte. Ideia hau orain dela hamalau urte ere izan genuen baina benetan lanean duela bost urte hasi ginen.

4.- Zer dira Oiartzungo ihauteriak? Ihauteri jaiekin neguari astindu bat eman nahi zaio, eta Udaberriari deitu. Naturarekin lotutako festa da.

5.- Noiz ospatzen dira Oiartzuneko ihauteriak? Aurten otsailaren 17 eta 18an. Bi egun izaten dira: ihauterietako larunbata eta igandea. Oraingoz bi egunetan ospatzen ditugu baina denborarekin aste osora iristeko asmoa dugu. Baina hori zuen lana izango da, zuen esku dago, zuek egin beharko duzue handitzean.

6.- Zein da ihauteri hauen historia? Goizetik "arraultz iyotea" egiten da. Baserriz baserri eta etxez etxe kantari eta dantzari ibiltzen dira kuadrilak "kuestazioa" eginez. Kuadrila bakoitza auzo batera joaten da. Honekin ihauteri festan parte hartu eta ondo pasatzera gonbidatu nahi da jendea.

Aldi berean, dirua eta janaria (arraultz, txorixo...) jasotzen dute eta ondoren bazkari eder bat egiten dute kuadrila guzietan batera.

Gero, gauean, San Esteban enparantzan elkartzen dira eta bertan sua piztu eta dantza, kanta eta juerga ederra egiten dute honen inguruan, izugarritzko zarata atereaz.

7.- Oiartzungo ihauteriak noizbait gaizki aterata al dira? Ez, normalean alderantziz izan da, ondo pasa du jendeak. Noizbait



bai, gertatu da zerbait erretzea, gauza gutxi, eta horregatik egoten dira orain estintore batzuk han ondoan.

8.- Zein da Oiartzungo ihauterietan izaten duten janzkera? Goizez, dantza egitera, neskak poxpolinaz jantziak joaten dira, eta mutilak txuriz, alkandora eta galtza txuriak eta alpargata soka, gerriko eta txapela gorriaz.

Gauean zakuz janzten dira. Intxisuak zaku eta larruaz, gainontzekoak zakuz eta arropa zaharrez. Bai eta gizonak emakumez eta emakumeak gizonez ere.

9.- Zein hasi ziren arropa hauek janzten? Aspalditik datorren ohitura da. Ez dakigu zein izan ziren lehenengoak.

10.- Ohitura zaharretan nola janzten ziren? Orain bezala, baina larru gehiago izaten zuten, etxean bertan egiten baitzituzten arropak garai haietan eta larrua erabiltzen baitzuten orduan horretarako.


11.- Zein pertsonaia daude Oiartzungo ihauterietan? Ba, Intxisuak, sorginak, Eskostiko neskamea e. a. Bideoan ikusi duzuen bezala, intxisuak sorginen senarrak ziren, jende ona zen, noblea, ez gaiztoa.

12.- Zuk laguntzen al diezu jantziak egiten? Bai.

13.- Oiartzungo ihauteriak politak al dira? Bai, oso politak.

14.- Lehen, urtean zenbat aldiz egiten zituzten Ihauteriak Oiartzuneko? Urtean behin, orain bezala.

15.- Noiz sortu ziren intxisuak? Ezin da esan hori, aspaldiko pertsonaia dira eta ezin da jakin noiztik datozen.



16.- Zergatik jazten dira zakuz? Lehengo garaietan janzteko gehien erabiltzen zen materiala zakua zelako.

17.- Zergatik egiten dute dantza? Uda-berria heldu delako. Festara gonbidatzeko. Janaria eskuratzeko. Ondo pasatzeko. Ohitura delako.

4. mailakoak.



MARI KARMEN ODRIOZOLARI ELKARRIZKETA

Mari Karmen Odriozola, emakume atsegina da, Euskadi Irratian lan egiten duena, eta berak egin digun harrera eskertzekoa izan da benetan. Zuei eskaintzeko, berarekin elkarrizketatxo bat prestatu dugu.

- Kaixo M.Karmen. Zer moduz zaude?

- Oso ondo nago, eta zuek?

- Ondo, ikusten duzu. Beno, Oiartzungo Haurtzaro Ikastolako 7.mailako lau ikasle gara eta zurekin elkarrizketatxo bat izan nahi genuke; alde batetik jendeak Tarte-ka-Marteka irratsaioan entzungo du eta bestetik Txinpart aldizkarian irakurri ahal izango du. Haserako galderak honako hauek dira: . nolakoa zara zure bizitza normalean, irratitik kanpo? Non bizi zara? Ezkonduta al zaude?

- Ja, ja, ja!! Gezurrik esaterik ba al dago?

- Ez, ez, hobeto ez!

- Ja, ja, ja!! Beno, begira, ni ordiziarra naiz, Ordizian jaio nintzen, bertan hazi eta bizi. Bizi, ez dakit bizi, bertan lo egiten dut, ia egun guztia Donostian pasatzen dudalako. Bertan bizi naiz. Bai, ezkonduta nago eta zu baino zahartxeago diren bi seme alaba ditut.

- Ezagutuko ditugu...

- Egunen batean, zuek nahi baduzue, bai.

- Beno, ba, orain badakigu zein zaren. Jakin nahi dugu nola hasi zinen zu irrat munduan lanean. Ea esan zenuen "Ba, nik irratian programa bat egingo dut" egunen batean eta lanean hasi zinen....

- Ez, ez, ezta gutxiagorik ere! Beno, egia da honelako lan baterako afizioa behar dela lehendabizi, beste ofiziotan behar den bezalaxe. Eta hori oso inportantea da, afi-

zio pittin bat edukitzea edo izatea. Eta nik, ba, banuen eta uste dut txiki-txikitandik somatu nuela gainera afizio hori, behintzat, ez dakit nola esaterik dagoen, artista munduan aritzekoa. Hau beste zerbait da, baina batzuk badira artista mundu honetan ere. Eta gustatu zitzaidan izugarri. Irratia jartzen nuenean etxean esaten nuen "kontxo, ni ere gustora jarriko nintzateke mikro baten aurrean eta sentitzen dudana, pentsatzen dudana, gustora esango nuke...ez? Ez dakit zerbaiterako balio duen baina hori egiteko gogoia eta grina sentitzen nuen maiz. Eta beno, gero hala egokitu zen. Ikastaro batzuk antolatu ziren irratarako, artean kazetaritza eta honelakorik ez zegoen oraindik, ia urte mordoxka bazen honetan hasi nintzela eta beno, ba, izan nuen aukera. Ikastaro batzuk egin eta lehendabizi Cadena Ser-en sartu nintzen. Cadena Ser-en euskerazko saio batzuk egiten genituen. Handik Euskadi Irratira pasa, eta urte mordoxka daramatzat eta benetan oso oso gustora, oso gustoko lana dut. Eta hementxe nago, bidali arte. Zuzendariak esaten duen arte "Benoko kitto, nahikoa duzu" eh? Ala! Ja, ja, bukatu da zurea!"




- Zein da zure programa? Noiz aurkezten da programa hori?

- Beno, momentu honetan, burutzen dudana irratsaioa astelehenetik ostiralera, egunero, eguerdiko 12etatik 13era, izaten da. Hortxe dut nik ordubeteko saioa niretzat. Hala deitzen dio zuzendariak "Mari Karmenen ordua". Nik ez; sekulako lotsa ematen didalako. Nik, "Eguerdia da" eta kitto! Ez dut besterik esaten.

Ba, hor denetarik hitzegiten dut, ordu-bete horretan. Beno, gauza asko aipatzeko aukera izaten dut. Lehenengo ordu erdian, ba, ez dakit, bizitza kalitateaz-edo aritzen gara orohar, denetarik pixkat. Eta bigarren ordu erdia, berriz, ba, nekazaritzari eskaintzen diot. Nekazaritzak sortzen dituen gaiak





(arazoak, azokak,...) jorratzen ditugu. Nekazariak, baserritarrek, ganaduzaleek dituzten arazoak, eta beno, Administrazioak transmititzen dituen hainbat gauza nekazariatzat. Bitarteko lana egiten dugu guk.

- Eta betirako Euskadi Irratian geratu nahi duzu, ala hemendik atera eta beste zerbaite egin nahi duzu?

- Beno, niri irratia asko gustatzen zait. Telebista ere bai, egia da, badakit telebistak beste muga batzuk badituela. Irratiak badu telebistak ez duen zerbaite eta da gure aurpegia ez duela jendeak ikusten, imajinatu egiten du. Eta horrek ere badu, ez dakit, horrelako erakarmen puntu bat, ezta?. Jendeak ez zaitu ezagutzen eta imajinatu egiten zaitu. Gero, igual, sekulako desilusia eramaten dute. Irratiak hori badu. Telebistak, aldiz, beno, ba, telebistaz ematen duzu zure ahotsa, ematen duzu zure maila eta zure irudia. Eta, beno, hor gauza asko nahasten dira, gehitxo akaso. Eta orduan, frakasatzeko aukera gehiago eman dezake telebistak irratia baino, ez dakit. Nire iritzia da.

- Zuk zein etorkizun ikusten diozu Euskadi Irratiari irratia munduan?

- Ba nik uste dut, irratia etorkizun bikaina izan dezakeela. Bereiziki Euskadi Irratiak, eta gure kasuan, ez naiz beste Irratiez ari (Gasteiz,...), gure kasuan 24 orduak egiten ditugu euskara hutsean. Alde horretatik, nik uste dut Euskadi Irratia saiatu dela, urte askotan gainera, euskara txukuna mantentzen, eta beno, horrek, nik uste dut, gorputz propioa eman diola Euskadi Irratiari eta aurrerantzean ere bai. Nik uste dut hori mantentzea komeni zaigula eta komeni zaiola gizarte osoari, eh? Euskerak bizirik iraun behar badu, eta nik uste dut denok nahi dugula, horretan ahalegin handiak egin behar ditugu. Baina nik uste dut komunikabide publikoak eta komunikabide euskaldunak derrigorrezkoak direla, ezta?

- Beno, ba, eskerrik asko, gu hain jarra atseginez hartu gaituzulako.

- Eskerrik asko, zuei!

HAUR HEZKUNTZA

Ihauteriak pasa ziren, ia ahaztuak daude baina, zenbat kezka otsailaren hamaseia iritsi bitartean! Zenbat lan gurasoentzat: mozorroa josi, makila prestatu... Zenbat urduritasun haurrentzat: dantzak ikasi, esku-lanak egin... Eta zenbat bilera irakasleentzat: Eta hau nola egingo dugu? Eta beste hori egingo bagenu?...

Aurten Haur Hezkuntza guztia, bai Haurtzarokoa, bai Elizaldekoa, mozorro berdinarengatik inguruan elkartu gara. Ez genuen uste Oartzunen hainbeste haur zegoenik!

Eta orain dena bukatu ondoren, gauzak ondo atera direla esan beharra dugu.

MILA ESKER DENEI ZUEN
LAGUNTZAGATIK!

eta...

Hurrengo urteko mozorroa
zein izango da????



NIRE IZENAREN HISTORIA

H.H. eta Primariako lehen zikloak, konstruktibismoaren inguruan ikastaro bat egin ari gara. Ikastaro honetan ariketa batzuk diseinatu behar genituen. Hauetako bat ZUHAITZ GENEALOGIKOA egitea zen. Proposamen hau ikasleei egin eta hona hemen 2. mailakoek egindako lanen adibide bat:

"Nire izena ni baino lehenago jaio zen.

Amaren tripan nengoela gurasoek beste izen asko asmatu zituzten:


Xabier, Mikel, Ander eta abar. Amak eta aitak biek batera erabaki zuten Jon jartzea.

Amak esan dit Jon aukeratu zutela arrazoi hauengatik: izena euskalduna zelako, erraza zelako esaten eta idazten, ez gertatzeko nire lehengusuari gertatzen zaiona: lker du izena eta lrungo amonak lke deitzen dio.

Ez zidaten jarri nire aitatxi eta amaxiren izenak, oso arraroak direlako: Tiburtxi eta Honorato.

Hauxe da nire izenaren historia eta nirekin bizi da."

Bigarren mailako ikasle batek.





ERLEAK

Hirugarren mailako talde batek, 1. hiru hilabetean ERLEA-ren gaia landu genuen. Alaiak esan zigun bere aitona erleekin lan egiten zuela eta bera elkarriketatzea pentsatu genuen. Orduan, larunbateko azokan parte hartzen zuenez, bertara joan ginen eta informazio asko jaso genuen, erle erregina ikusi eta ezti goxoxoa dastatu genuen.

3. mailako talde bat.



TXANGOAK: IHAUTERIAK EZAGUTUZ



Aurten ere heldu gara Haurtzaro ikastolako 3. mailako ikasleak Joaldunen Ihauteak ezagutu eta haiekin bizitzera.

Joaldunak: Ituren eta Zubietako Ihaute-rietan agertzen dira. Herri hauetan, urtarri-leko azken astelehen eta astearte- an ospatzen dira Ihauteiak.

Haien ezaugarri nagusia gerrian zintzarri handi pare lotuta eramatea da. Zintzarria da Ihautei hauetako elementu nagusia.

Mutilek, gerria astinduz, izugarritzko hotsa ateratzen diete zintzarrioi. Binaka joaten dira ileretan joaldunak.

Hauei beste lagun batzuk ere gehitzen zaizkie, hara nola: karroxak, mozorrorik zinesgaitzenak, sorginak, ijitoak...

Ituren eta Zubietako Joaldunen janzkera desberdina da. Iturengoek ardilarru doblea eta painelu gorriak daramatzate soinean; Zubietakoek, ordea, ardilarru bakarra eta painelu urdina. Guztiek eramaten dute isipua eskuineko eskuan eta txoto dotorea buruan. Txoto honi "Ttuntturroa" deitzen zaio, hortik Joaldunei Ttuntturroak deitzea.

Zintzarriei "joare" deitzen zaie, hemendik talde hauei joaldunak (joaredunak) deitzea.

Badago beste era bat ere talde hau izendatzeko: Zantantzarrak.

3. mailakoak



TELEBISTA

Laugarren mailakoak telebista programa bat grabatzen ari gara. Gure telebistak "Amona motorista" du izena. Orain arte Txori-txikolo lehiaketa grabatu dugu. Gela bakoitzak beste gelakoentzat lehiaketa prestatu genuen, galdera batzuk egin genituen eta azkenean puntuaketa eman.

Orain programa horretarako bertsoak prestatzen ari gara eta ondoren albisteak prestatuko ditugu.

Oso ondo pasa genuen grabaketan. Prestaketa lan zaila da baina merezi du programa ondo gelditzen bada.

MATTIN

Mattin mutil tontoa zen eta dena aldrebes egiten zuen. Behin batean bera eta bere aitona Mamutera joan ziren. Mamuten arrain bat erosi zuten bere kaja eta guzti eta aitona honela esan zion:

- Mattin, zoaz baserrira eta eraman ezazu arraina.

Mattinek hartu zuen arraina bere kaja handian eta etxerunzko bidea hartu zuen. Nekatuta zegoelako kaja lurrean jarri zuen eta etxera abiatu zen. Etxean kaja utzi zuen txoko batean eta telebista ikustera joan zen. Aitona etxera joan zenean han zegoen arraina bai, baina hilik.

Hona hemen iritzi batzuk:

* Telebista zera iruditut zait: oso polita; programa hasterakoan nerbioso nengoen baina gero ez. Galderak ez ziren oso errezak baina moldatu ginen. Puntu asko lortu genituen; oso pozik geratu ginen programa bukatakoan. Gauza ez da irabaztea, ondo pasatzea baizik.

*Telebista programa zera iruditut zait: oso ongi zegoen eta gainera denak oso ongi pasa genuen.

Galderak oso ongi zeuden eta gainera galdera batzuetan tranpak egin genituen, eta bukatzean nik, behintzat, lasaitu ederra hartu nuen.

*Telebista zera iruditut zait: oso ondo iruditzen zait egin duguna, baina pixkat roiloa izan da galderei erantzuteko mikrofona alde batetik bestera eraman beharra. Ez zaigu gaizki atera, oraindik ere gehiago egin behar dugu.

*Erabakitzean programa bat egingo duzula baiezkota ematen duzu telebistan ateratzeko baina gero prestaketak egitea oso zaila da, dena antolatu beharra dago ondo ateratzeko eta denbora asko behar da.

Programa hastean publikoa izatea ez zaigu gustatzen, lehian aritu nahi duzu publikoan ez aspertzeko.

4. mailakoak.

- Mattin! Non da arraina?

- Bere kajan - erantzun zion.

- Bai, baina hilik. Kajak azpian zuloa zuen eta dena arrastaka ibilia zegoen. Arraina bere kajan jarri eta kaja eskuetan, airean, eraman behar da eta gainera tarteka ura aldatuz beroa egiten duenean.

- Bai aitona, bai; hurrengoan horrela egingo dut ba.

Hurrengoan azukre zakuaren bila bidali zuen. Mattin nonbait esanekoa izan eta hartu zuen zakua eta han abiatu zen zakua eskuetan zuela. Tarteka erreka ingurura joan eta hantxe sartzen zuen zakua. Etxera etorri zenean aitona esan zion:

- Azukrea? Non duzu azukrea?

HATZAK BETE LAN

- Zakuan egongo da, nik zuk esandakoa besterik ez dut egin.

- Baina ez al dakizu azukrea ez dela uretan sartu behar? Azukrea bizkarrean hartuta eraman behar da.

Hurrengoan helatu barra batzuen bila bidali zuen bazkaria baitzuten hurrengo egunean familiarekin eta Mattinek, esanekoa zenez, bizkarrean hartu zituen eta eguzki galdatan han abiatu zen. Bizkarra busti-busti zuela iritsi zen etxera eta han...

- Baina Mattin, zer duk hau? Hemen ez zegok helaturik.

- Niri ez esan ezer, nik zuk esandakoa besterik ez dut egin.

- Baina, Mattin, helatua bere boltsan itzaletik ekarri behar da eta ez eguzkiak gehien jotzen duen lekutik.

Ez duk ezer ongi egiten dena aldrebes, dena aldrebes. Hemendik aurrera nik egingo dizkiat erosketak eta hik etxeko lanak, ados?

- Ados!- eta horixe egin zuten.

Bazkari egunean Mattinek etxeko lanak egingo zituela esan zuen eta aitonak erosketak. Aitonak honela esan zion Mattineri:

- Hi! Labean tarta bat zegok eta arkumeak txabolan zeudek, baina beleekin kontuz. Zerbait arraroa ikusten baduk hartzak eskopeta.

- Bale, zuk esandakoa egingo dut- eta joan zen aitona.

Telebista ikusten ari zela orru batzuk entzun zituen, arkumeak ziren, txabolan zeuden baina ez zen han belerik.



Mattinek, ordea, belarra jan nahi zutela pentsatu zuen eta ataka ireki zuen. Gero telebista ikustera joan zen. Handik ordu erdi batera orro batzuk entzun zituen eta oraingoan gainera, beleenak ziren. Hartu zuen eskopeta eta irten zen. Beleak ziren eta arkume bat zeramaten. Orduan hasi zen tiro bat botatzen baina ezin! Hutsik baitzegoen. Arkumea eraman zuten baina oraindik tarta gelditzen zen. Orduan kea ikusi zuen sukaldean. Joan zen, atera zuen tarta baina alferrik, erreta zegoen. "Beno txokolatezkoa dela esango diegu" pentsatu zuen.

Etorri zen aitona eta ez zion ezer esan, baina bai egin. Hartu zuen kutxa bat eta barruan sartu zuen. Gero giltzaz itxi eta zera esan zion:

- Hemendik aurrera hor egongo haiz nik erosketak egin bitartean.

Baina Mattin ez zen asko larritu eta hauxe esan zuen:

- Gizona beti gizon, kutxa barruan bada-go ere!!!

7an maiteko ikasle bat

ERAKUSKETAREN IKUSPUNTUA

Kaixo lagunak! Ni Haurtzaro Ikastolako 8. mailako ikasle bat naiz eta urtarilaren 31 an egin genuen erakusketaren ikuspuntuaz idatziko dizuet.

8. mailakoek erakusketa interesgarri bat egin genuen. Erakusketan denetik zegoen makinei buruz, baina gehien bat baporezko





makinez. Erakusketa hau egin zen, zeren eta 8. mailakoen gaia iraultza industrial zelako egin zen.

Erakusketatik jende asko pasa zen eta horren ondorioz, gauza batzuk agortu egin ziren eta faltan igarri genituen. Adibidez: Kandelak, hauek ura berotzeko erabiltzen ziren. Pilak, denboraren ondorioz, gastatzen joan ziren; eta beste hainbat gauza ere bai.

8. mailakoei erakusketa hau oso atsegina iruditu zaigu baina jendearen aurrean jartzen garenean, urduri jartzen gara. Baina tira, oso material ona zegoenez jendea gustora atera zen.

Erakusketa hau egiteko lehenengo materiala behar edo egin behar da. Guk gauzak egin genituen. Tresnak egiteko materiala behar da eta jende askoren arazoa hori izan da, makina horientzat materiala aurkitzea. Gainerakoan, oso lan txukunak egin ditugu.

ANTZERKIA



8. Mailako ikasleek, hizkuntzaren proiektu ezberdinen artean, ANTZERKIA landu dute. Gela bakoitzak bere taldeak osatu

Badakizue, oso gauza interesgarriak eta atseginak ikusi nahi badituzue, Haurtzaro ikastolako 8.mailakoen erakusketara etorri.

Agur! Eta beste bat arte lagunak!



8. mailako ikasle bat.



ditu eta talde bakoitzak antzerki bat pres-tatu du. Honetarako, errekturso linguistiko- ez gain, bestelako errektursoez ere baliatu dira. Aurrena, testua buruz ikasi, ondoren mugimenduak zehaztu, erropak aukeratu ...

Hiruhilabete bukaeran, zikloko ikaskide eta irakasle guztien aurrean antzeztu dute eta ikuskizun dotorea eta bizia eskaini digu-te. Honetaz gain, 5. eta 6. mailako ikas-leei ere eskaini dizkiete eta hauek ere une alaiak igaro dituzte.

Tartean, antzezlari iaioak ikusi ahal izan ditugu eta orokorrean, esperientzia polita izan da.



HORRATS GALDU

- Generala! Generala!
Gerra galdu dugu!
- Ba, segi bila!




Eguberriko pertsonaia handia da.

Zein da?

1	2	3	4	5	6	7	8	9
---	---	---	---	---	---	---	---	---

Ipar. Gazta	Zeuzkala	Zortea	Zeukaat	Bukaera
Rabel	Lika	Eskura- ezina	Nuke, haci	
Erretratu- gilea	Kiroi proba	Pl. Lore mota		
Oreagako mendia		Oinetako mota		
	5			3
Graba- zioak				Boroa
Jauki hadi				Tresnak
		Aldrebes	2	Hitz
		Bokala		Neuri zaharra
Afrikako estatua		Izan euskaldun		Ez eme
Bilera aginak		Ditu. hari		Bi
		500	Erroa	
		Zuberoako mugan	Haurrak	
49	Etiopia			Alegria
Me landarea	Kampo			
		Deitura		Baldin- izetan
		Zirt edo erabakit		Hariz lotu
Desenikusa		6		Sabinoren lema
Modua				Sufrea
	8	Azaleko	4	Dirua
		Lehen bi bokalak		Atzizkia
Iodoa	Ipar, Ardoak			Pute
Kanpotar	Potasoa			Mila
		9		
		Zientzia mota		

Josunek laguna galdu du Tolosako lhauterietan. Lagun iezaiozu aurkitzen. Igorek, Josunen lagunak, burua estalita darama, ez du zigororik erretzen, hortzak agerian ditu, pajarita darma lepoan eta belarritakoa belarri bakarean.




BAZKAL ORDUA

Misiolari bat Afrikara joan da bere lanera eta han, bakar-bakarrik herri batetik bestera doala, lehoi goseti bat agertu zaio oso-osorik irensteko asmoz. Misiolariak ez du inungo ihesbiderik ikusten eta, etsipen osoz otoitzen hasten da, eta esaten dio dio lehoiak:


- Zaude lasai! Niri dagokit mahaia bedekintzea eta!



NAHASTE BORRASTE



MIKEL A





HAURTZARO IKASTOLA

 **kutxa**

fundazioa
fundación

